

KONTROL MOZIOA

ERREGISTROTIK ESKATUTAKO INFORMAZIO ESKAEREI ERANTZUNA 15 EGUNETAN EMATEKO BETEBEHARRA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko otsailaren 17an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Informazioa eskuratzeko eskubidea zinegotzi garen aldetik dugun oinarritzko eskubide bat da, eta beharrezkoa dugu gobernuaren jarduera fiskalizatu eta kontrolatzeko gure eginkizuna betetzeko.

Udal arauetan ezarrita daude egiteko hori bete dezagun behar dugun informazioa lortzeko bai prozedura bai epeak (15 egun). Gure aldetik, egin beharreko izapidea egin dugu, baina 2019ko abuztutik ez dugu eskuratu gure eginkizunak behar bezala eta eraginkortasunez betetzeko eskatutako eta behar dugun informazioa.

Zehatz-mehatz, honako zenbaki hauekin erregistratutako informazio eskaerak erantzun gabe daude joan den abuztutik: 1097, 1104, 1105, 1119, 1120, 1121, 1149, 1158, 1301, 1302, 1499, 1506, 1517, 1541, 1559....

Gauzak horrela, otsaileko Zerbitzu Orokorren batzordean Gobernantzako delegatua interpelatu dugu. Delegatuak aitortu du joan den abuztutik 23 informazio eskaera erantzun gabe daudela eta, batez ere, departamentu zehatz batekin egon dela arazoa. Besterik ez.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaltza osatzen dugun zinegotzion informazioa eskuratzeko eskubidea errespetatu dezala eta eskatutako informazioa araudiak ezarritako epe barruan eman dezala.

Donostian, 2020ko otsailaren 21ean

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia